

5.000.000.000.000

BOST BILIOI zigarro mutxikin sortzen da urtero, zenbaitek hala dio. Gure planetarako 850 milioi kilo zabor. Horixe bai zaborra, erreuxa! Gehienak material sintetikoaz eginak dira: zelulosa monoazetatoa, polibinilo azetatoa, titanio dioxidoa, triazetina, polietilenoa... Mutxikin horiek, batez beste, hamabost urte inguru behar dute desegiteko. Ameriketako Estatu Batuetan itsasertzean eta ibaieetan aurkitutako hondakinen %30 mutxikina da. Komuneko zulotik behera edo nonahi botatzeko ohiturak mutxikin horiek ur bazterretan pilatzea dakar. Ura luzez kutsatuko dute mutxikinak pixkanaka askatuko dituen nikotinak, bentzenoak, kadmioak eta abarrek.



Arazo horri buelta eman beharraren aitzakia hartuta negozioa egin nahi duenik ere bada. Bejondeiola. Material sintetikoak erabili beharrean material naturalak baliatzea proposatzen du, dagoenerako, enpresa batek baino gehiagok. Hiru landareren

zuntzak darabiltzate: kotoia (*Gossypium* sp.), lihoa (*Linum usitatissimum*) eta kalamua (*Cannabis* sp.). Zuntz horiek hilabeteren buruan desegiten omen dira, eta lurraren ongarri bihurtu. Horiek ere izango dute nikotinarik eta keak garraiatutako gai txarrik, baina ez dituzte aipatzen.

Areago joan denik ere bada. Desegingo diren zuntz horien artean landare haziak sartuko omen dituzte. Mutxikina nonahi eta nolana botatzeko aitzakia ederra! Komun zulotik edo parkean edo mendian bota lasai, hilabetean desegingo da eta haziak hortxe baliatuko dute hondakintxo hori ernatzeko. Mutxikina haziaren ongarri dosia. Beraz, lasai bota mendian ere zigarro punta, suak erretzen badu ere berritzeko hazia ematen diozu.

Negu-txilintxa (*Galanthus nivalis*) landarearen haziak dituztenak jarri nahi dizkiote Europa iparraldean. Erraz etorri eta lore zuri polita ematen du. Nik beste era bateko uzta dakarren hazia duena jarriko nuke salgai. Zigarreta biltzen duten horientzat egokia: kalamu hazia duena. Kalamua, baina ez zuntzak egiteko kalamuarena, *Cannabis sativa*. Erretzeko kalamuarena baizik, *Cannabis indica*. Non ibiltzen zaren, erre, mutxikinak bota eta konturatzeko landare berriak hor dituzu, hankapean ia, zain. Hurrengo txirriak biltzeko... ■



LANDAREAK • ERDIKO KAIERA



JAKOBA ERREKONDO

Erleak zirri

ETXEAN ETXEKO bezala erle eultzea izateak garai bateko bizimoduan erleak zuen garrantzia garbi asko adierazten du. Erlea nahi eta ezkoa zen fruitu batzuk jaso ahal izateko. Sagarra, adibidez, erleak ernaltzen du. Mahatsa ez, haizearen nahikeriara lotua dago. Eztiak eta argizariaz gain etxeko urteko edaria zegoen erleen esku: zizarra, pitarra eta sagardoa. Nola ez zuten ba eultzea zainduko? Etxekoa, familiakoa zen erlea. Argazkian, Aramaioko Olaetako Ubidena baserriaren aurrealdean, sarrera nagusia eta leihoen artean, eultzea. Eultzera barrutik irits daiteke. ■

ikuszirkus

CALL ME MARIA OBSIDIANA Abenduak 27, 20:00	ORTZI ACOSTA Abenduak 29, 20:00
ENTREDOS CIA. CAPICUA TEATRO Abenduak 28, 20:00	POTTED LA TROCOLA CIRCO Abenduak 30, 20:00

Informazio gehiago: ☎ 943 30 35 40 · www.andoain.org

  